

EUSKARALDIA EMAN IZENA!



Mendaroko hamaikakoa

Gure hizkuntza-ohituretan eraginda, ingurukoekin ditugun harremanetan euskara gehiago erabiltzea da helburua, azken urteotako eginahalak erakutsi duelako euskararen alde egotea ez dela nahikoa, egin ezean. Gure hizkuntza-ohituretan eragiteko asmoz Jaurlearitzak eta Euskaltzaleon Topaguneak sortutako ekimena da Euskaraldia, eta Euskal Herri osoko mapa zipriztindu du. Mendaro ere batu da ekimenera, eta azaroaren 23tik abenduaren 3ra, 11 egunez, euskaraz egitea proposatzen dizugu. Aurrez, zure ingurukoak Euskaraldian izena ematera animatzeko eskatu nahi dizugu, eta aukerarik ikusiz gero, gai honen inguruko bideoak grabatzeko eta bidaltzeko ere bai: euskaraldia@mendaro.gmail.com.

Nork parte hartu dezake?

Bi baldintza beste behar dira Euskaraldian parte hartzeko: euskaraz berba egiten jakitea edo euskara ulertzea eta 16 urtez gora izatea.

Para inscribirse bastará con cumplir dos requisitos:

Ser mayor de 16 años y ser capaz de hablar o entender euskera.

Bi rol aukeran

Bakoitzak bere inguruan edota bere ohiko harreman-sareetan jarriko du martxan ariketa hau: familian, lagunartean, lanean, eskolan, herriko dendetan... Izena ematen duten denek txapa edo ikur bana eramango dute paparrean ariketak irauten duen 11 egunetan: ahobizi edo belarriprest dagokiona.

Proponemos que cada cual lo haga en su entorno más cercano. Del 23 de noviembre al 3 de diciembre de 2018 llevaremos una chapa que nos identificará como Ahobizi o Belarriprest

Ahobizi: Euskaraz egingo die ulertzen duten guztiei. Edonon, edonoiz eta ulertzen duen edonorekin egingo du euskaraz. Ezagutzen ez dituenekin lehen berba euskaraz egingo du beti, eta ulertzen baldin badute, hortik aurrerako denak ere bai.

Hablaré en euskera con las personas que lo entienden, aunque ellas me contesten en castellano. Y al dirigirme a quien no conozco, al menos mi primera palabra será siempre en euskera.

Belarriprest: Euskaraz dakiten guztiei euskaraz egiteko eskatuko die. Euskara ulertzen duela adieraziko die besteie eta berarekin euskaraz berba egin dezatela eskatu. Berak, bere ahalen araberaz erantzungo die, euskaraz, erdaraz nahiz bietara.

Háblame en euskera, que yo te entiendo. Independientemente de que te conteste en euskera o en castellano, quiero que me hables en euskera.

Izena emateko

● Izena emateko: On-line, www.euskaraldia.eus helbidean, edota udaletxean (harreran eta liburutegian), Ormolan, Leire jantzi-dendan, Txirristakan, Rotetan, Morroskillon eta Lagun Betikoak tabernan. *Hay dos opciones para inscribirse: On-line (www.euskaraldia.eus) o en el ayuntamiento y en los siguientes establecimientos: Ormola, Leire, Txirristaka, Roteta, Morroskillo y Lagun Betikoak.*